

**ATAUNEN DAGOEN ARALARKO PARKETXE HEDATUAN ARRETA EMATEKO  
ETA HURA DINAMIZATZEKO KONTRATUA ESLEITZEKO KLAUSULA  
ADMINISTRATIBOEN PLEGUA  
(ARALARKO PARKE NATURALA)**

**003/2014 KONTRATAZIO ESPEDIENTEA**

**1. Erakunde esleitzaila eta kontratu mota:**

Kontratu honen erakunde esleitzaila GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOA da, sektore publikoko fundazioa.

Kontratazio organoa: fundazioaren Patronatua.

Kontratua zerbitzuak emateko kontratu pribatua da, Sektore Publikoko Kontratazio Legearen Testu Bateratuaren 20. artikuluari jarraiki.

Ez dago erregulazio harmonizatuaren mende, Sektore Publikoko Kontratazio Legearen Testu Bateratuaren 13. artikuluari jarraiki.

**2. Kontratuaren xedea eta gauzatzeko tokia:**

Aralarko Parketxe hedatua erabiltzea eta kudeatzea: oinarrizko arreta ematea eta interpretazio zentroa dinamizatzea.

Aralarko parketxe hedatuaren jabeak Gipuzkoako Foru Aldundia eta Ataungo Udala dira, eta Aralarko Parke Naturalean (Ataunen) dago.

**3. Espediente zenbakia: 003/2014**

**4. Esleitzeko modalitatea:**

Kontratatzeko prozedura irekia izango da, meritu lehiaketa bidezkoa. Klausula administratiboen plegu honetako 15. atalean adierazitako irizpideak balioztatuko dira.

**5. Lizitazioaren aurrekontua:**

Lizitazioaren gehienezko prezioa, hau da, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak kontratu honetan jasotako zerbitzuak ematearen truke enpresa esleipendunari ordainduko dion gehienezko prezioa, URTEKO 91.000 €-koa (LAUROGEITA HAMAIIKA MILA EURO) izango da, BEZa barne. Prezio hori kontratua indarrean den urte bakoitzeko zerbitzuari dagokio.

Aurrekoari kalterik egin gabe, enpresa lizitatzailerik lizitazio prezio txikiagoa eskaini ahal izango dute. Lehiaketa fasean kontuan hartuko da alderdi hori, Klausula administratiboen pleguaren 15. atalean adierazitakoaren arabera.

## **6. Ordainketa modua**

Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak lehiaketan erabakitako prezioa ordainduko du, bi zatitan, erakunde esleipendunak adierazitako kontu korrontean. Lehen ordainketa kontratua indarrean sartu eta lehen hilean egingo da; bigarrena, ordea, kontratuaren indarraldiko seigarren hilean.

## **7. Prezioak berraztertzea:**

Kontratuaren ezaugarriak direla eta, prezioak ez dira berriz aztertuko.

## **8. Kontratuaren iraupena eta luzapena:**

Kontratuaren iraupena BI (2) URTEKOA izango da, formalizatzen denetik hasita, eta beste BI URTEZ luzatzeko aukera izango da, hasierako iraupena bukatu baino gutxienez bi hilabete lehenago, aldeek luzatzeko berariazko nahia adierazten badute.

## **9. Behin-behineko bermea:**

Ez dago halako eskaerarik.

## **10. Behin betiko bermea:**

SEI MILA (6.000,00) EURO.

## **11. Kontratatzaileen sailkapena:**

Ez dago halako eskaerarik.

## **12. Dokumentuak lortzea:**

Kontratu honi dagozkion baldintza teknikoak eta klausula administratiboen pleguak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren webgunean argitaratu eta lizitatzailerik eskura jarriko dira (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak/> eta <http://parketxesarea.org>).

## **13. Eskaintzak aurkeztea:**

Kontratu honetan interesa dutenek eskaera aurkeztu beharko dute, gutxienez, ondoko dokumentu hauekin:

- Enpresaren titularra den erakunde juridikoa sortzeko dokumentuaren kopia.
- Enpresaren IFK txartelaren kopia

- Enpresako harremanetarako pertsona zehaztu eta haren datuak adierazi beharko dira.
- Enpresak burututako jarduerak azaltzeko txostena (ikus klausula administratiboaren plegu honen 15. ataleko 1. irizpidea)
- Bisitariak artatzeko zerbitzuaren proposamena (ikus 15. ataleko 2. irizpidea)
- Dinamizatzeko programaren proposamena (ikus 15. ataleko 3. irizpidea)
- Eskaintza ekonomikoa (ikus 15. ataleko 4. irizpidea)

Lizitatuzaileek Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren egoitzan (Ibaiondo industrialdea 27, 1., 20120 Hernani, Gipuzkoa) aurkeztu beharko dituzte eskaintzak.

Lizitatuzaileek 15 egun balioduneko epea izango dute eskaintza aurkezteko, pleguak fundazioaren webgunean argitaratzen direnetik hasita.

Eskaintzak ondoko ordutegi hauetan aurkeztu ahalko dira:

- Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 15:00etara

**14. Aldaerak edo alternatibak:** kontratuaren izaera dela eta, ez dira onartzen.

#### **15.- Esleitzeko irizpideak:**

1. irizpidea - Esperientzia parketxeetan arreta ematen eta horiek dinamizatzen (25 puntu). Kontratazio Batzordeak enpresa lizitatuzaileek parketxeetan edo antzerako zentroetan arreta ematen eta horiek dinamizatzen ziurtatzen duten esperientzia balioztatuko du. Esperientzia ziurtatzeko, enpresa lizitatuzaileak curriculum erako txostena aurkeztu beharko du eta, txosten horretan, merituak behar bezala ziurtatu.

**Oharra:** ezinbestekoa da enpresa lizitatuzaileek (erakunde moduan) parketxeetan edo antzerako zentroetan arreta ematen eta horiek dinamizatzen, gutxienez, bi urteko esperientzia izatea.

2. irizpidea - Bisitariak artatzeko zerbitzuaren proposamena (20 puntu). Kontratazio Batzordeak enpresa lizitatuzaileak bisitariak artatzeko moduari buruz aurkeztutako proposamena balioztatuko du. Zehazki, ondoko alderdi hauek hartuko dira kontuan: baldintza teknikoen pleguan adierazitako gutxieneko ordutegiaz gaindiko irekitze ordu osagarriak, edo, alde aurreko hitzordu bidezko artatze zerbitzu espezializatua sortzea.

**Oharra:** proposamenetan, artapen zerbitzuari eskainitako ordu guztien batura zehatza adieraziko da.

3. irizpidea - Dinamizazio programa (45 puntu). Kontratazio Batzordeak enpresa lizitatuzaileak aurkeztu duen dinamizazio programa proposamenaren originaltasuna eta edukia balioztatuko ditu, batez ere. Programaren proposamen horretan ingurumen sentsibilizazioko eta hezkuntzako jarduerak azalduko dira (irteerak, txangoak, bisitaldiak, hitzaldiak, tailerrak, eta abar) adin guztietako bisitariantzat, baita horretarako sortu beharreko material didaktiko osagarria ere.

4. irizpidea - Prezioa (10 puntu). Azkenik, Kontratazio Batzordeak enpresa lizitatzaileraren eskaintza ekonomikoa balioztatuko du. Lortzen den puntuazioa eskaintza ekonomikoaren eta gehienezko lizitazio prezioaren, hau da, plegu honetako 5. atalean adierazitakoaren, arteko aldearekin proportzionala izango da.

## **16.- Esleipen prozedura**

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Kontratazio Batzordeak kontratu honen esleipena erabakitzeke bilera egingo du. Kontratua nori esleitu hilabeteko epean erabaki beharko du, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita.

Kontratazio Batzordearen erabakia modu frogagarrian jakinaraziko zaie lizitatzailer guztiei, erabakia hartzen denetik 15 eguneko epean.

## **17. Kontratua formalizatzea, ziurtagiriak eta ordainketa**

Zerbitzuaren esleipenduna den enpresarekin merkataritza kontratua formalizatuko da, baina aurretik enpresa horrek ondoko dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- ✓ Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko behar guztiak bete izanaren ziurtagiria.
- ✓ Gutxienez 600.000 €-ko erantzukizun zibileko aseguruaren kopia eta horren ordainketa justifikatzen duen azken ordainagiria.
- ✓ Segurtasun eta osasun azterketa.

Lanak hasi aurretik, esleipendunak ondoko dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- ✓ Langileen izenen zerrenda eta haien NANaren kopia.
- ✓ Gizarte Segurantzaren alta egoeran egotearen ziurtagiria.

Enpresa esleipendunak, hilero, faktura egingo du, kontzeptu bakoitzarengatik fakturatu beharreko unitateetan banatua edo fakturarekin batera zerrenda baloratua erantsita.

Fakturarekin batera ondoko dokumentuak bidali beharko ditu:

- ✓ Lanak gauzatzen dituzten langileen nominak ordaindu izanaren ziurtagiriak.
- ✓ Gizarte aseguruak eta horien ordainketaren ziurtagiriak. Horietan lanari atxikitako langileak agertzen direla egiaztatuko da.
- ✓ Langileek segurtasun eta osasun arauak betetzen dituzten ikusiko da, eta langileei horretarako beharrezkoa duten materiala eman dieten eta haiengan eragin zuzena daukaten arauak jakinarazi dizkieten egiaztatuko da.

Faktura Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundaziora bidali beharko da, erreferentziazko dataren ondorengo hilabeteko 15. eguna baino lehen. Fakturan, berau ordaindu ahal izateko banketxeko kontu zenbakia adierazi beharko da. Ordainketa faktura fundaziora iristen den

egunetik 30 egun igaro baino lehen egingo da, betiere baldintza formal guztiak betetzen baditu eta erantsi beharreko dokumentazioa zuzena bada. Gainera, fundazioko arlo teknikoaren oniritzia beharko du.

Aurrekontuan adierazitako unitateak orientagarriak izango dira, eta benetan exekutatuakoa besterik ez dira fakturatuko.

### **18. Kontratazio Batzordea:**

Kontratazio Batzordearen burua Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioko Patronatuko presidenteordea izango da. Fundazioko zuzendaria eta parketxe bakoitzaren udalerriko alkatea batzordeko kide izango dira. Fundazioko Patronatuko idazkaria, edo hura egon ezean, Fundazioko aholkulari juridikoa izango da batzordeko idazkaria.

### **19. Argitalpen gastuak:**

Ez da argitalpen gasturik aurreikusi, kontratu hau kontratatzailearen profilaren bidez zabalduko baita, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren webgunean.

### **20.- Kontratua gauzatzeko hizkuntza baldintzak:**

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan azaldutako eta 10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, euskararen erabilera normalizatzekoak, ezartzen duen hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren erregimenaren mende dago kontratu hau, baita lege hori garatzeko araudiaren mende ere, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren alorrean hizkuntza ofizialen erabilera erregulatzen duen foru dekretua. Ondorioz, klausula berezien pleguaren 32. klausulan adierazitakoaren arabera, bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintzetako bat da eta, betetzen ez bada, kontratua amaitzea eragin dezake.